

**IRIZPIDEAK, ATZERRIAN LORTUTAKO GRADU/LIZENTZIATU TITULUETAKO  
IRAKASGAIK BALIOZKOTZEKO ESKARIAK EGITEKO**

967/2014 EDarekin bat etorrita, Psikologia Fakultateak honako irizpideak ezarri ditu atzerriko tituluak baliozkotzeko eskaria onartzeko (gradu/lizentziatu tituluak, atzerriko unibertsitatearen batean bukatu eta emanak).

1.- Eskariak onartzeko, eskariarekin batera honako agiriak aurkeztu behar dira, eta, betiere, ezin izango dira egon aipatutako errege dekretuko 3. artikuluan zehaztutako salbuespenen artean:

- Eskudun ministerioaren erabakia, unibertsitateko titulu edo maila akademiko ofizialera parekatzeko eskariari buruzkoa: Onartuko diren eskari bakarrak eskudun ministerioak ebaluatutakoak izango dira.

- ECD/2654/2015 Aginduan jasotakoak, hau da:

a) Eskatzailearen nortasuna eta nazionalitatea egiaztatzen duen dokumentuaren fotokopia erkatua, ikaslearen herrialdeko agintari eskudunek egindakoa.

Espainiar herritartasuna duten pertsonen kasuan edo espainiar herrialdean bizi diren atzerritarren kasuan, eskari egilearen adierazpena baimena emanaz nortasuna egiaztatzeko, horrela jasota baitago apirilaren 28ko 522/2006 Errege Dekretuan, izan ere horren arabera Estatuko Administrazio Orokorrean edo horri lotutako edo horren menpeko erakundeetan administrazio prozedurak egitean nortasun agiriaren kopia aurkeztu beharrik ez dago. Hala ere, eskari egileak berariaz adieraz dezake ez duela horretarako baimenik ematen, eta horrelakoetan, nortasuna egiaztatzeko agiriren baten kopia aurkeztu beharko du (agiria indarrean egon behar da).

b) Homologatzea eskatzen den tituluaren fotokopia erkatua, edo tituluaren ziurtagiriaren fotokopia erkatua.

c) Eskatzaileak titulua lortzeko egin dituen ikasketen ziurtagiri akademikoaren fotokopia erkatua, non, besteak beste, honakoak agertu behar diren: ikasketen iraupen ofiziala ikasturteetan neurtua, irakasgaiak, irakasgai bakoitzaren ordu kopurua eta, egoki izanez gero, lortutako ECTS kopurua.

d) Irakasgaien programak

Atzerriko dokumentuek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Ofizialak izan beharko dira eta horretarako eskumena daukaten agintariak emanak, kasuan kasuko herrialdeko antolamendu juridikoaren arabera.

b) Bide diplomatikoz legalizaturik aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Hagako zigiluarekin. Agindu honen 4. artikuluan jasotakoaren ondorioetako, legezketasun bermea edo zigilua jatorrizko dokumentuaren gainean ezarri beharko dira, fotokopia egin baino lehen. Europako Batasuneko herrialdeek edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko hitzarmena sinatu dutenek edo Suitzan egindako dokumentuei ez zaie baldintza hori eskatuko.

c) Egoki izanez gero, gaztelaniara egindako itzulpen ofizialaren kopia erkatua aurkeztu behar da.

2. Ikastegiak ikasturte bakoitzean bi eskari onartuko ditu, eta erabiliko den irizpidea izango da baliozkotu nahi den tituluaren espediente akademikoaren nota, betiere, nota horren batez bestekoa 6,5 baino handiagoa bada.

3. Irizpide horiek guztiak ezarriko dira, baldin eta ikastegiak plazarik badauka.